

EREMU DIGITALEKO NORABIDEA ELKARREKIN LANTZEN lantegia

EUSKAL SOZIOLINGUISTIKA JARDUNALDIA 2018/11/06, Bizkaia Aretoa EHU (Bilbo)

Parte hartzaile bakoitzak bi galdera idatzi ditu. Hasiera batean asmoa galdera guztiak boz gora irakurtzea bazen ere, talde oso handia izan gara eta galdera batzuk irakurri ostean, lau gai nagusitan banatu ditugu galderak. Gai bakoitzari buruz eztabaidatzeko talde bana sortu dugu.

Honakoak izan dira lau gaiak: **edukiak, hizkuntza ohiturak, neurketa eta burujabetza teknologikoa.**

Jarraian, parte hartzaileek proposatutako galderak zerrendatu ditugu:

Edukiak

1. Zein ekarpen egin diezaioke Ingurune digitalak euskararen irakaskuntzari?
2. Gaur egun, zeintzuk dira euskal kulturari buruzko edukien banku digitalak?
3. Nola sustatu euskarazko kontsumoa?
4. Nola sustatu dezakegu euskarazko eduki digitalen kalitatezko sorkuntza?
5. Non izan behar dute tokia eduki horiek? Plataforma propioetan ala nagusietan?
6. Lizentzia libreko euskarazko edukiak nola zabaldu?
7. Nola sustatu dezakegu euskarazko Wikipediaren erabilera euskal komunitatean?
8. Nola lehenetsi edukiak?
9. Zer da estrategikoki lehentasunezkoa ingurune digitalari dagokionez ? Tresnak garatzea? Eduki digitalak?
10. Wikipediaren garrantzia azpimarratu da: Zer indar egiten da hezkuntzan, maila edozein izanik ere, edukiak sortzen eta osatzen joateko ? Nola bermatu kalitatea (edukiak, hizkuntza)?
11. Euskararen kalitatea kontuan hartzen da ingurune digitalean?
12. Haur eta gazteentzako aplikazioak. Zer lehenetsi? Erabilera handikoen lokalizazioa? Propioak sortu (sorkuntza)?

Hizkuntza ohiturak

1. Hizkuntza ohiturak aldatzeko nola eman prestigioa? Horretan ari gara hemen eta adibidez word-a erdaraz dago.
2. Zer egin dezakegu (batez ere) gazteen hizkuntza ohiturak aldatzen hasteko ingurune digitalean?
3. Ezagutuko al ditugu Netflix, Whatsapp edo Instagram euskaraz?
4. Hizkuntza ohiturak direla eta, zergatik aukeratzen dugu gurea ez den hizkuntza bat bilaketa edo kontsulta bat egiten dugunean?
5. Hizkuntzen teknologian mundutik sortzen diren aplikazioak (hiztegiak, itzulpen automatikoa, zuzentzaileak, etab.) erabiltzen ditugu? Euskarazkoak?
6. Euskararen presentzia digitala areagotzeak bermatuko luke gazteak euskara sarriago erabiltzea?
7. Sare sozialak eta euskararen erabilera. Behar duen arreta eta garrantzia ematen diogu gai honi?

Neurketa

1. Big Dataren gaiari nola hel diezaiokegu?
2. Nola baliatu daiteke Big Data teknologia euskararen biziberritze prozesuan?
3. Zer egin dezakegu garatutako teknologiak eremu zehatzetara eramateko?
4. Nola neurtu dezakegu euskararen egoera ingurune digitalean?

Burujabetza teknologikoa

1. Gure gobernuetan politika digitalerako gidaritza baten faltan... "Internet institutu" bat sortzea izan daiteke abiapuntua?
2. Zeintzuk izan behar dira euskararen burujabetza digitalerako oinarriak?
3. Burujabetza digitala lantze aldera, zein urrats eman?

Parte hartzaileek proposatutako galderak oinarri hartuta, taldeetan hainbat proposamen edo ondorio adostu ditu. Ondoren, ideia horiek guztiak talde handian partekatu dira. Jarraian, talde bakoitzak egindako ekarpena:

1. taldea: EDUKIAK

Wikipedia

Wikipedia eta hezkuntza: Egun Txikipedian 1200 artikulua daude. Edukiak egokitu egiten dituzte Wikipedian, eboluzio bat egoten da eta artikulua gero eta zehatzagoak eta garatuagoak dira. Ikasi egin behar da Wikipedia irakurtzen, noiz egin zen artikulua? Noizkoa da azken aldaketa?

Baina, zelan bermatu Wikipediako edukien hizkuntza kalitatea?

Librea eta irekia denez, Wikipediaren filosofiaren kontra doa hizkuntza kalitatea bermatzeko kontrol neurriak jartzea. Hala ere, beharrezkoa da Wikipediaren zuzentasun linguistikoa zaintzea. Dena den, onartu beharra dago, edukiak egokitu egiten direnez, kalitatea ez dela inoiz perfektua izango.

Kontsumoa

Kontsumitzaileen jarreraz hausnartu da, bereziki gazteen jarreraz aritu dira. Gazteek aisialdian edukiak zein hizkuntzan kontsumitzen dituzten galdetuta, gaztelaniaz edo ingelesez erantzun dute. Horri buelta nola eman izan da kezka nagusietako bat. Erroka horri ekiteko ikerketa beharra dagoela nabarmendu da, batez ere, gazteen kontsumoaren ingurukoa.

Bide horretatik, eskaintzari begira, dauden aplikazioak euskaratu ala berriak sortu beharko lirakeen mahaigaineratu da. Izan ere, gertatzen da euskaraz sortutako hainbat eduki gero ez direla euskaraz kontsumitzen, eta, ondorioz, euskaraz sortutako hainbat eta hainbat baliabide desagertu egiten dira.

Sorkuntzan indarra jarri behar dela aipatu da, gazteek erabili ahal izateko baliabideak izan ditzaten. Eta horien garapenari begira software librearen garrantzia aipatu da.

2. taldea: HIZKUNTZA OHITURAK

Erabilera

Eremu digitalean euskararen presentzia areagotzeak euskararen erabileran eragingo lukeen galderari baiezkoa eman dio taldeak. Batez ere, gazteei begira, beraiek baitira eremu digitalean gehien mugitzen direnak.

Hala ere, komunitate zabalago batera heltzea lortu beharko litzateke, ez bakarrik gazteengana edo teknologian adituengana. Jende gehiago mugitzen duten eremuetara eta jarraitzaile askoko espazioetara heltzea lortu behar da.

Hizkuntza ohituretan eragiteko hitz-gako batzuk aipatu dira: Hizkuntzaren prestigioa, funtzionalitatea, identitatea eta erreferenteen garrantzia. Ohiturak aldatzeko hurbiltasuna eskaini behar dela nabarmendu da, baina hurbiltasun fisikoaz gain, emozionalki konektatzeaz eta hurbiltzeaz hitz egin da.

Erakunde eta enpresen ardura

Enpresa eta erakundeetan dituzten baliabide teknologikoak euskaraz jartzeko erabaki estrategikoa ez da erabaki gunetara iristen, adibidez, ofimatikako tresnak euskaraz jartzea. Langilearen hautu pertsonalera mugatzen da aldaketa hori egiteko aukera.

3. taldea: NEURKETA

Datu bilketarako Big Datak ematen dituen aukerak

Hizkuntzen egoera neurtzeko aukera handiak eskaintzen ditu Big Datak.

Datu asko bil daitezke bide desberdinetatik. Honako datuak eskuratzeko aukera aipatu da adibide legez: tramitazio elektronikoak zein hizkuntzatan egiten diren, banketxeetako kutxazainetan erabiltzaileek zein hizkuntza erabiltzen duten, erabiltzaileek parking-etako ordainketa egiteko aplikazioa zein hizkuntzatan lehenetsita duten, Osakidetzan hitzordua hartzerako orduan hautatzen den hizkuntza...

Datu horiek guztiak ez daude sistematikoki jasota, eta hori egin ezik, ezin da hizkuntzaren osasuna aztertu. Informazio hori guztia era ordenatu batean jaso beharko litzateke, era horretan, euskararen egoera hobeto ulertu ahal izateko.

Administrazioaren ardura

Hizkuntza ohituren gaian aipatu bezala, hemen ere administrazioaren aldetik erabaki estrategikoa hartzeko beharra nabarmendu da. Besteren artean, interfazeak euskaraz jartzearen aldeko apustua egitea.

4. taldea: BURUJABETZA TEKNOLOGIKOA

Politika digitalerako lidergoa hartzea nori dagokio?

Lidergoa hartzea Eusko Jaurlaritzari dagokiola aipatu da. Besteak beste, lobby lana ere egin dezakeelako. Adibidez, Microsoft-i presioa egin eta negoziatzeko aukera izan dezake produktuak erosten dituenen.

Eremu digitalari lotutako institutu bat beharko litzateke. Izan daiteke, goizeko lehenengo zatiko panelean aipatu den bezala, Kataluniak daukan Politika digitalerako kontseilariaren bidetik zerbait egitea. Argi azaldu da ez dela inondik inora ere asmoa sortzeagatik beste erakunde (txiringito) bat gehiago sortzea.

Delako institutua arduratuko litzateke enpresa handiekin (Google, adibidez) harremana izateaz. Horrez gain, bertako enpresak eta hemen egiten den lana ere balioan jarri beharko luke, ikusgarritasuna eman.

Baliabide propioak

Baliabide propioak sortu beharra dago, baina ez beti. Batzuetan enpresa handiek eskaintzen dituzten baliabideak eta aukerak aprobeitza ditzakegu. Bide horretatik, hizkuntza-teknologiaren berariazko plan bat egiteko beharra nabarmendu da.

Horretarako, ikerketan eta formazioan lehenetasuna jarri beharra dago, baina ondo pentsatu beharra dago zer lortu gura den. Zer lortu nahi den erabaki eta horri eutsi behar zaio.

Garrantzitsua litzateke beste hizkuntza batzuekin ere harremana izatea, ez bakarrik gu baino egoera kaskarragoan daudenekin, baita hegemonikoagoak izan daitezkeenekin ere. Ondo zer egin duten ikusi eta gurera ekartzeko aukera aztertu.

Erakundearen ardura

Mundu akademikoan euskarak ez du baliorik eta euskara eremu horretan babesteko moduak sortu beharko lirateke. Euskaraz ikertu eta publikatzea sustatu beharko litzateke.

Diru laguntzen inguruan hausnartzeko beharraz hitz egin da. Zer laguntzen da diruz? Software librea sustatzea ere bide honetatik bideratu beharko litzateke.

Lehenetasuneko gaia dela nabarmendu da eta lehenbailehen gai honi heltzeko beharra dagoela.



**SOZIOLINGUISTIKA
KLUSTERRA**
Euskara biziberritzeko
ikergunea

